





## 1. NORTZUK EGITEN DUGU EGONALDI HONEN DEIALDIA?

**Wikitoki Elkarte** - **Elkarsorkuntzarako Laborategia**, kultur ekintza, gizarte berrikuntza, garapen komunitarioa eta ekonomia banatua jorratzen dituen elkarsorkuntza laborategia gara. Ekonomia soziala hartzen du abiapuntutzat, helburu gisa baino, bitarteko gisa ulertuta.

Harreman, hibridazio edota kosorkuntza modu berriekin esperimendatzeko Bilboko San Frantzisko auzoan dagoen gunea, diziplina ugariaren bitartez eta hainbat arlotan, profesionalen eta amateurren artean, gizarte zibilaren eta hainbat eragile publiko eta pribaturen artean.

Harreman, antolakuntza, ikerketa, sorkuntza, ekoizpen eta kontsumo era berrien inguruan esperimendatzeko elkartzeko aukera.

Gehiago jakiteko ikusi [bideoa](#),  
ikusi honako gida: [Zer da Wikitoki eta nola funtzionatzen du](#)  
nabigatu [webean](#),  
Jarrai gaitzazu Twitterren [@wiki\\_toki](#)  
edo etor zaitez Harrobi Plazara, 5 - 2. - 48003 Bilbo

## 2. ESPERIMENTAZIO-ARLO NAGUSIAK

Wikitoki osatzen duten kideen lan lerroez gain, orokorrean arreta jartzen dugun zenbait lerro eta interes komunitetan, besteak beste:

1. **Antolakuntza eredu** eta **harremanen zein lanaren protokolo horizontalak eta banatuak**. Hazteko modu orekatuak ahalbidetzea, adhokraziaren eta mutualismoaren artean, elkarlanetik, sinergiak sortuz, osagarritasunak indartuz; gaur egungo banakotasun eta prekaritate egoerari aurre egiteko. DIYtik (DoItYourself) DIWOra (DoItWithOthers) igarotzea.
2. **Ekoizpen- eta negozio-eredu aske eta irekiak**. Aukera berriak sortzea sortzen ari denari arreta jartzen eta guztien ongia sustatuz. Ekonomia solidariotik, kolaboratibotik eta P2Ptik datozen planteamenduak berriro nahastea. Errentaren eta gainerako kapitalen (sinbolikoa, erlazionala, denbora...) banaketa hobea erraztea.
3. **Bizitza erdian jartzen duten ugalketa sozial ereduak**. Estimua eta zainketan nabarmentzea, etika feministaren printzipioetatik eta permakulturatik. Harreman ez instrumentalak ezartzea, erantzunkidetasunean, iraunkortasunean eta elkarrekiko mendekotasunean oinarritzen direnak.
4. **Kultura esperimendatzeko, subjektibitate berriak sortzeko eta elkarrekin sortzeko ereduak**. Lehendabiziko aldaketa beti da kultura-aldaketa, iruditerien, forma eta egitura erlazionalen aldaketa, portaerena, errito eta ohiturena. Eta horretan funtsezkoak dira praktika artistikoak eta adierazpenak, modu zabalean ulertuta, diziplinarratik eremu hedatura.



### 3. EGONALDI LABURRAK

Wikitoki pertsona eta erakunde kopuru aldakorrek osatzen du (25 pertsona inguru normalean). Komunitate honek izaera irekia dauka eta zenbait modu bilatzen ditu interesak gurutzatzeko, beste eragileekin gaitasunak gehitzeko.

Harremanak irekitzeko helburu horrekin, Wikitokitik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko *SORGUNE* programaren laguntzarekin, egonaldi laburren deialdiak abian jarri dira. Zenbait erronkei heltzeko modua, Wikitokiko esperimentazio eremuekin bat doazenak, beste pertsonekin eta erakundeekin jarduten, Wikitokikoa izateak dakarren konpromisu maila malguago batetik edo aldi baterako.

Ezaugarri orokorrak:

- **Iraupena:** 2 eta 6 hilabete bitartean, proiektuen ezaugarrien arabera, ez da aurrez aurrekoa izan beharrik.
- **Diru kopurua:** 2.500 € (zergak barne), ordutegiak, materialak, egon daitezkeen desplazamendu gastuak eta dietak... barne.
- **Laguntza:** Wikitokiko koordinatzaile bat, baita komunitatearen beste pertsonak ere, proiektuaren izaera eta gaiaren arabera.
- **Beste baliabide batzuk:** lanerako eta bilerak egiteko gunea –erabilera askekoa–, Wikitokiko baliabide orokorrak eta inguruko gizarte, kultur eta arte eragile sarea eskura.

Wikitokiko egonaldiei buruz gehiago jakiteko, bisitatu dezakezu [«egonaldiak»](#) kategoria geure web orrian edo [#Wikitoki2018Erresidentziak](#) etiketa Twitterren.

### 4. “KOLEKTIBOAN ANTOLATZEA” EGONALDIA

Modu zehatzean, egonaldi deialdi honek Wikitokiko funtsezko kontuetako bati heltzen die, hau da nola antolatzea kolektiboki. Geure asmoa da geure antolaketa-logikari buruz jardutea, baita protokoloei eta gailuei buruz eraginkorragoa eta amultsuagoa egiteko. Eta geure asmoa da geure errealitatez ezarritako modura egitea, gobernantza-formula horizontalagoak, banatuagoak eta erantzunkideagoak definitzeko, produktiboari zein erreproduktiboari arreta hartzen, erdialdean pertsonal jartzen.

- **Erronkak:** Orain arte garatu dugun eredutik eta zeinaren aldaketan lanean aritu garen azken urtean zehar, aukera berriak aurkeztea soziokrazia, holokrazia edo adhokrazia eredu aldertiak dituztenak.
- **Kontuan hartu beharrekoa:** Nola hartu erabakiak eta erronkei aurre egitea komunitatean eta okitu gabe; nola orekatu egitura komuna mantentzeko beharrak eragile bakoitzaren errealitateekin; nola banatu eginkizunak eta erronkei aurre egin elkarlanean; nola sortu harreman mutualistak, erantzukidetasun eta elakrekikotasunezkoak; nola antolatu lantaldeak eta proiektuak hasi autonomiaz eta



modu independentean; zeintzuk dira egon daitezkeen bazkidetasun motak, rolak edo inplikazio mailak; balioen eta errentaren zer distribuzio mota...

- **Aurrekariak:** Wikitoki sortu zenetik modu jarraituan landu den gaia da eta zeinean arreta berezia jarri den azken urtean zenbait elkarlaneko talde eta prozesuen bidez. Hobeto kokatzeko zenbait testu kontsultatu ditzakezue hausnarketa kokatzen dutenak: [Cuestión de estilos](#), [Tiempos comunes](#) eta [La sostenibilidad de la vida es inversamente proporcional a personas en llamas](#).
- **Prozesua:** badauden materialen analitik hastea parte hartzeko modalitateak eta monetizazio sistema berriro zehazteaz arduratzen den Wikitokiko lantaldeari dagokionez. Modu irekian aritzea, aurrez aurreko momentuak eta aurrez aurrekoak ez direnak sartuz (hasierako lan-saioa, kontraste-saioak, aurrez aurreko edo online erdiko saio posibleak...).
- **Emaitza:** Nagusiki izaera praktikoa duen txostena, Wikitokirako antolaketa-eredu zehatza definitzen duena zenbait protokoloekin, aholkuekin, erreferentziazko eredurekin...

## 5. KONTUAN HARTU BEHARREKO GAI PRAKTIKOAK

### PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi hau zuzenduta dago edozein jatorriko eta jarduera-arloko pertsona edo kolektiboetara. Funtsezkoena da motibazioa eta egonaldien gaiarekin bat doan proposamena aurkeztu ditzaten. Oraingoan uste dugu deialdia bereziki egokia dela antolaketa-ereduak, sare-sistemak, elkarlaneko egiturak diseinatzen esperientzia duten pertsonentzat edo erakunde mota hauetan dauden edo esperientzia duten pertsonentzat.

### BALDINTZAK

- Egondia 2018ko uztaila eta azaroa bitartean garatuko da.
- Pertsona edo kolektibo egoiliarak parte hartu beharko du gutxienez aurrez aurreko bi saioetan Wikitokin, bata prozesua hasten denean, eta bestea amaieran, emaitzak aurkezteko.
- Pertsona edo kolektibo egoiliarak aldizkako harremana izango du Wikitokiko laguntza taldearekin (aldizkotasuna proiektuaren arabera).
- Modu koordinatuan pertsona edo kolektibo egoiliarraren eta Wikitokiren artean prozesua irudikatuko da Wikitokiko web orriaren eta sare sozialen bidez. Gainera, prozesua ixteko pertsona edo kolektibo egoiliarak post bat egin beharko du Wikitokiko web orrian prozesuaren azalpena eta esperientziaren balorazioa jasotzeko.
- Pertsona edo kolektibo egoiliarak konpromisua hartzen du, amaierako emaitza gisa, nagusiki izaera praktikoa duen txostena aurkezteko.
- Egondia honetan sortutako lana baita sortzen diren komunikazio-elementuak ere Creative Commons CC-BY-SA lizentziapean argitaratuko dira.



## ESKAERA ETA IZENA EMATEA

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2018ko ekainaren 11a (Astelehena).
- Pertsona edo kolektibo bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du.
- Proposamena euskaraz edo gazteleraz aurkeztu ahalko da.
- Proposamena [info@wikitoki.org](mailto:info@wikitoki.org) helbidera bidaliko da. Mezuaren gaian, «KOLEKTIBOAN ANTOLATZEA Egonaldia» jarriko da.
- Eduki guztiak PDF bakar batean bidali behar dira (gehienez 5MBekoa). Bideoak eta bestelako materialak testuan bertan jaso behar dira, link batean.
- Proposamenak honako informazioa eduki beharko du:
  - Proposamenaren laburpena. Gehienez 300 hitz.
  - Proiektua/idea deskribatzen duen dossierra. Motibazioa, helburuak, behar teknikoak, lan egutegia... Gehienez 5 orrialde.
  - CV / Ibilbidea / Deialdiarekin harremana duen portfolioa.
  - Norberaren datuak (izen-abizenak, helbidea, telefono zkia., e-posta helbidea, lotura webgune eta sare sozialetara).

## IRIZPIDEAK ETA HAUTAKETA PROZESUA

- Proposamenaren hautaketa Wikitokiko bazkideez osatutako epaimahaiak egingo du.
- Hauek dira kontuan hartuko diren irizpideak:
  - Aurkeztutako proposamena aurkeztutako helburuen arabera.
  - Aldez aurreko esperientzia landuko den gaiarekin lotura duena.
  - Egiteko posible izatea eta tresnetara zein baliabideetara egokitzea.
- Epai-mahaia harremanetan jarri ahalko da pertsona edo kolektibo eskatzailearekin beharrezkoa deritzon informazioa osagarria biltzeko,
- Deialdia esleitu gabe gera liteke aurkeztutako proiektuak proposatutako erronkarekin bat ez datozela uste bada.
- Hautaketa 2018ko ekainaren 20an (asteazkenean) jakinaraziko da.



# VIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia  
Laboratorio de prácticas colaborativas